

**Usteak, Ustel!**

Argitu ditzagun zalantzak...

# Komunitate musulmanei buruzko galderak

# 25.

---

***Komunitate musulmanei buruzko galderak***

**Jordi—Moreras Palenzuela**

## Meskita bat ireki dute nire auzoan; zer gertatuko da orain?

Printzipioz, **auzoan bizi den bizilagun talde batentzat kultu-leku bat** irekitzeaz harago, ezer ez, eta, ziurrenik, meskitaren sustatzaileek administrazio publikoek eskatzen dituzten baldintza guztiak beteta izango dituzte. Arduradunek bizilagunei eragozpenik ez sortzeko neurriak ere aurreikusiko zituzten, eta zentro berria auzokideen aurrean aurkezteko jardueraren bat ere antolatuko zuten. Eta zerbaitegatik norbait kexatzen bada, onena arduradun horiekin hitz egitea izango da, irekitze horrek sortuko lituzkeen eragozpenak konpontzeko. Baina, jakina, baimen guztiak dituen lokal batean, beste pertsona batzuek otoitz egitea jasan ezin duten jendea badago, agian arazoa haiena izango da, eta haien tolerantzia faltarena.

## Zer islam-mota predikatuko dute?

Jatorriko herrialdean zituen formekin lotura estua duen islama izango da. Hau da, **islam tradizionala, familiekin hertsiki lotua, kultura eta jatorri jakin batekiko lotura hori bizirik mantendu eta belaunaldi berriei transmititu besterik nahi ez duena**. Gure balioei kontra egin eta gure gizartean beren bizimodua inposatu nahi ez duen islama, alegia. Egunerokotasunean eta familiarren esparruan modu diskretuan bizi den islama, islamismoa proiektu politiko gisa burutzearekin zerikusi gutxi duena. Beste islam hori beste testuinguru batzuetan garatzen da (Interneten, esaterako), eta ez da predikatzen meskita komunitario horietan.

## Ni ez naiz arrazista, baina ez zait gustatzen meskita bat nire etxetik hurbil jartzea

Beno, etxetik hurbil erabilera kolektiboko ekipamendu bat inauguratzeak beti pentsarazten du eragozpenak sortuko dizkiela bizilagunei. Ospitale, eskola edo supermerkatu bat irekitzen dutenean ere gertatzen da hori. Izan ere, eguneko ordu jakin batzuetan jende asko pila daiteke, edo inguruan zarata handia sor daiteke. Baina, **erabilera publikoko ekipamendu bat irekitzen den bakoitzean, alde aurretik aztertzen da auzoan eragin dezakeen inpaktua. Hala ezartzen du legeak.** Erljio-zentro berriei eskatzen zaie lokalak intsonorizatzeko, jende-kopurua kudeatzeko estrategiak proposatzeko eta aparkaleku-gune hurbil bat aurreikusteko. Hau da, zentro horietako arduradunak, lehenik eta behin, bizilagunentzat traba ez izaten saiatzen dira. Behar dutena egiten dute, baina ezin dute saihestu jendeak errezeloz begiratzea egiten dutenari.

## Ez al litzateke hobea izango konfesio anitzeko espazio bat sortzea guztientzat?

**Erljio anitzeko zentroak dira hainbat hamarkadatan erlijioen arteko elkarrizketa lantzen daramaten herrialdeetan funtzionatzen duten proposamenak,** espazio horiek topaleku komun bihurtzen baitira. Espazio horiek nazioarteko aireportuetan ere badaude, bidaiarien eskura. Baina gure gizartean, etorkizunean era horretako espazio pluralak planteatu daitezkeela baztertu gabe, erlijio-komunitate bakoitzak bere espazioa izan nahi du bere gurtza kolektiboa egiteko.

## Zer pentsatzen du parrokiak aniztasun erlijioso horretaz guztiaz?

Bada, parrokia bakoitzaren arabera da, baina **gehienak oso irekiak eta harkorrak dira auzoa osatzen duten kolektiboei dagokienez, nahiz eta auzotar horiek beren eliztarren artean ez egon**. Eta horren froga parrokiek bultzatzen dituzten elkartasun-jardueretan ikus dezakegu, ez baitute jendea bereizten praktikatzten duten erlijioarengatik. Gainera, parrokia batzuek **tradiczio erlijiosoen arteko topaketa sustatzen dute**, elkarbizitzaren alde lan egin behar dela pentsatzen baitute. Beharbada, arazoa ez dator parrokiako erreto-rearen aldetik, baizik eta eliztar batzuen aldetik, ez baitituzte gogo onez hartzen presentzia berri horiek. Zeregin pastoralak beste sinesmenekiko tolerantzia-be-teberrak gogoraraztea ere badakar.

## Zergatik daramate beloa musulmanek?

**Islamak**, gainerako tradizio erlijiosoek bezala, **gizonentzako eta emakumeentzako portaera sozial batzuk ezartzen ditu**. Portaera horietako bat da, besteak beste, jendaurrean gorputza babestea. Lotsak balio du gizonen eta emakumeen gorputzeko atal jakin batzuk kanpoko begiradetatik babesteko. Baina, era berean, argi dago tradizio horiek moralitate kolektiboak askoz gehiago sustatzen dituztela emakumeen gorputzean, gizonenean baino. Emakume musulman askok uste dute beloa erabiltzea derrigorrezkoa dela, beren erlijio-sinesmenen arabera; beste batzuek, ordea, ez dute hala pentsatzen, eta arbuatu egiten dute erabat misoginotzat jotzen duten inposizio hori. Egia da Europako komunitate musulmanetan haren erabilera orokortzen ari dela, eta horrek adieraz dezake emakume horiek konpromiso handiagoa dutela beren erlijio-kidetzarekin; baina, era berean, komunitatearen presio sozialak eragina duela adieraz dezake. Nolanahi ere, **garrantzitsua da pertsonak entzutea, eta haien motibazioak eta arrazoiak ulertzea**; izan ere, beloa erabiltzea erabakitzen duten emakumeak eta ez erabiltzea erabakitzen dutenak askotariko identitate musulmanaren adierazpen-testigantzak dira.

## Gure gizartea laikoa da, ala sekularizatu dago?

Konstituzioak akonfesionaltzat jotzen duen estatu bateko kide gara, erlijio-askatasuna aldarrikatzen duena eta erlijio bat bera ere ofizialtzat hartzen ez duena. **Izugarri sekularizatutako gizarte batean bizi gara**, beherantz doan erlijio-praktika batekin eta ohituren liberalizazio zabalarekin. **Baina gizarte gisa katolizismoaren balioekin identifikatzen gara**, eta jende askok uste du erlijioaz hitz egitea Elizaz hitz egitea dela. Badakigu erlijioak ez duela aurreko hamarkadetan zuen eginkizun nagusi bera, baina horrek ez du ekarri gure gizartean kontzientzia laikoa garatzea. Izan ere, ez da gauza bera mezetara joateari uztea edo erlijioak gizarte demokratiko baten eremu publikoan izan behar duen eginkizunari buruz eztabaidatzen hastea. **Sekularizazioa ez da laikotasunaren sinonimoa**. Izan ere, laikotasuna oraindik ez da gure kultura politikoaren parte, printzipio hori babesteko eta defendatzeko plataforma zibiko batzuek ahalegin handia egin arren. Fededunak izan ala ez, garrantzitsua da erlijio-erreferentziek zer zeregin izan behar duten definitzen jakitea, eta are gehiago orain, erreferentzia horiek askotarikoago bihurtu direnean.

## Guretzat erlijioa hain garrantzitsua ez bada, nolatan dago oraindik hain jende erlijioso?

**Jende askorentzat erlijioak, identitate partekatua izateko ez ezik, mundua interpretatzeko eta norberaren bizitzari zentzua emateko bide eraginkorra izaten jarraitzen duelako.** Arrazoi horiek oso garrantzitsuak dira, eta erlijio-sinesmenek ez duten pertsonak ere uler ditzakete. Guztiok dugu zerbaiten kide sentitzeko beharra, baita bizitzan orientatuko gaituzten uste sendoak izateko beharra ere. Alderdi politikoetan militatzen duen jendea dago, musika-talde baten fan egiten den jendea, edo beren futbol-taldearen koloreengatik miresmena sentitzen duen jendea. Kasu horiek guztiak gure kidesun- eta identitate-beharrak asetzeko balio duten ordezkioak dira. Baina bai erlijio-debozioak bai laikoak pertsonaren alderdi espiritualaren parte dira; alegia, ez dira erlijio-sinesmenaren parte bakarrik, gu guztiona baizik.

## Zergatik egon behar du erlijioak eskolan?

Konstituzioak dioenez, gurasoek seme-alaben hezkuntza aukeratzeko eskubidea dute, ikastetxe bakoitzaren ideien arabera, eta **eskola publikoek erlijio-hezkuntza katolikoa eskaini behar dute, hezkuntza ebanjeliko, musulman eta judutarraz gain, betiere behar besteko eskaria badago.** Hori oinarri hartuta, hezkuntza-legea aldatzen den aldiro eztabaidatzen da irakasgai horrek azken espediente akademikorako duen garrantzia, edo gai alternatibo bat proposa daitekeen (bere garaian etika edo herritartasunerako hezkuntza izan zen bezala). Egia da hezkuntza-munduko sektore batzuek erlijioa eskola publikotik ateratzearen alde egiten dutela. Baina horretarako lege-esparru hori aldatu beharko litzateke, non, hezkuntza katolikoaz gain, ebanjelikoa eta musulmana ere sartuko bailirateke, lurralde osoan duten hedapena desberdina baita oraindik ere.

## Erljioei buruz txantxak egin al ditzakegu?

Gai hori asko ari dira eztabaidatzen, sentimendu erlijiosoekiko irainak adierazten ari baitira. Baina **eztabaida horretan irainak kritikekin eta txantxekin nahastu dira; oso desberdinak dira eta gizarte demokratiko batean aldarrikatu behar dira**. Kritikak erlijioen gehiegizko sakralizazioa saihesten du; izan ere, erlijioa ez zaio tradizio horietako doktrinaren edukiari edo figura garrantzitsuei zuzentzen, baizik eta hura mundu-mailan ordezkatzeko dutenengana zuzentzen da. Eta txantxari dagokionez, **Umberto Eco**k Jorge Beneragarriaren —*El nombre de la rosa* eleberriko monje itsuaren— ahotan jarri zuen aipua gogoratu behar litzateke: «barreak beldurraren amaiera dakar, eta beldurrik gabe ez dago federik». Erljio-sinesmenei buruz txantxetan aritzea giza historiaren parte izan da. **Kritikak eta txantxak adierazpen-askatasun arduratsuaren esparruan kokatzea merezi du**, eta biek ardura-neurri hori galtzen dutenean orduan bihurtzen dira irain, deskalifikazio eta errespetu-galera. Eztabaida horretatik bi ideia zehaztu dira: irainak ezin dira egin adierazpen-askatasunaren izenean, eta irainak, oso handia izanda ere, ezin izango du inoiz indarkeriazko erantzuna justifikatu.



## Non lurperatzen dituzte hildako musulmanak?

Islamak zenbait hileta-arau ezartzen ditu. Arau horien arabera, **hildakoa lehenengo araztu egin behar da, lurperatu** (eta ez erraustu, kristautasunak eta judaismoak onartu duten bezala), **Mekara orientatuta dagoen hilobi batean, eta hildako musulmanekin soilik partekatutako eta gainerakoetatik bereizitako lursail batean**. Agindu horiek guztiak, gorpua zuzenean hilobian uztea izan ezik (indarrean dagoen araudiak hilkutxa erabiltzea eskatzen du), hilerri askok betetzen dituzte; hildako musulmanentzat erreserbatutako partzela bat eskaintzen dute. **Baina oraindik ere jatorrizko gizartearekin mantentzen den familia-loturaren garrantzia dela eta, hildakoen gehiengo batek jatorrizko herrialdera itzuli nahi izaten dute**. Etorkizunean, espainiar musulmanen belaunaldi berriak jaio diren gizartean lurperatu ahal izateko, askoz lursail gehiago prestatu beharko dira udal-hilerrietan.

## Erljio guztiak matxistak dira, ezta?

**Tradizio erlijioso nagusiak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen ez zen garaietan sortu ziren**, eta, beraz, nagusi zen patriarkatuaren luzapen bat gehiago bihurtu ziren. **Gaur egun**, erlijio-erakundeek modernitatera egokitzeko izan dituzten aldaketak gorabehera, **oraindik lan asko dago egiteko emakumearen paperari dagokionez**, bereziki erakunde horietako zuzendaritza-kontseiluetan eta gurtzaren zuzendaritzan duten presentziari dagokionez. Erljio bakoitzaren baitan jokatzeko den eztabaida doktrinala da, baina, azkenean, nolabaiteko garrantzi publikoa du, hain zuzen ere, erlijio horietan patriarkatuaren biziraupena aldatzeko.

## Zergatik dituzte hainbeste mania janaria- rekin, guk ez baditugu?

Tira, jateko orduan maniarik ez dugula ikusteke dago. Izan ere, **kultura bakoi-tzak ezartzen du zer den ona jateko, eta zer ez den jan behar**. Horregatik, hobe da ez orokortzea. Egia da, islamean, kristautasunean eta judaismoan bezala, hainbat debeku ezartzen direla elikagai jakin batzuei dagokienez, bai elikagai horiek prestatzeko, bai une jakin batzuetan ez kontsumitzeko. Adibidez, asko harritzen gaitu ramadan hilabeteko baraualdiak, eta ez dugu kontuan hartzen garizumaren zentzuaren oso antzekoa dela. Edari bizigarrien (kafea, esaterako) edo alkoholduen abstinentzia ere tradizio monoteisten elikadura-debekueta bat izan da; izan ere, drogak edo substantzia psikoaktiboak hartzearen kasuan bezala, gizabanakoaren kontzientzia-egoera aldatu egiten dute. Islamean debeku horien salbuespen bakarra egon daiteke: ahorakinak pertsonaren biziraupena babesteko balio badu.

## Ondo daude erlijioen arteko elkarrizketa-jarduerak, baina elkar ulertzen al dute hitz egiten dutenean?

**Elkarrizketa topaketaren emaitza da**, eta elkartzeko eta arazo komunei buruz hitz egiteko borondatea adierazten duen jendea dagoenean, ziur elkar ulertzeko moduak aurkitzen dituztela. Erlijioen arteko elkarrizketa ez da tradizio erlijiosoen arteko eztabaida teologikoa, eta ez da eztabaidatzen sinesmen erlijiosoen egiazkotasuna edo faltsutasuna. **Tradizio bateko eta besteko kideei eragiten dieten arazoei aurre egiteko eta. horren ondorioz. elkarren arteko konplizitatea sortzeko aukerak dira.** Ateoak edo agnostikoak izan arren, positiboki baloratu behar dira ekimen horiek, berez ez baitute gizarte-arazoak konpontzeko balioko, baina hain premiazkoa dugun gizarte-kohesioa eusten laguntzen dute.

## Nork ordaintzen ditu jarduera erlijioso horiek guztiak?

Oraingoz, erakunde horietako kideek, haiek baitira beren erlijio-beharrei erantzuteko interes handiena dutenak. Jendeak uste du udalen dirulaguntza jasotzen dutela meskitak, edo, are okerrago, atzerriko herrialderen batek finantzatzen dituela. Eta guztiz kontrakoa da: **meskitak musulmanek ordaintzen dituzte borondatez**, eta aurrekoa gezurtatzen duen froga gisa esan daiteke, atzerriko herrialdeek finantzatuko balituzte, ez liratekeela hain espazio apal eta xume horietan egongo. **Erljioen arteko ekimenez**, ordea, **administrazio publikoen laguntza jasotzen dute**, elkarbizitarako eta gizarte-kohesiorako espazioak sortzen laguntzen dutela uste baitute.

## Nola jakin dezaket nire bizilagun musulmana ez dela terrorista?

Gure bizilagunak terroristak izateko aukera oso zaila da. **Baina gure buruari galdetu behar dioguna da zergatik dugun susmo hori.** Gure aurreiritziengatik harrapatuta jarraitzen dugunaren froga da hori. Ez da erraza haietaz libratzea, prentsako albiste batzuek musulmanen eta terroristen arteko harremana azpimarratzen jarraitzen baitute. Aurreiritzi horietaz libratzeko modurik eraginkorrena bizilagun horiekin harremanetan jartzea da. Espazio bera partekatzen dugula aprobetxatuz, nolakoak diren ikus dezakegu, eta **aurreiritzi horiek eralda ditzakegu esperientzia zuzenean eta pertsonalean oinarritutako ezagutzagatik.**

## Musulmanek barkamena eskatu behar al dute atentatu jihadistien aurrean?

**Ez, ez dute barkamenik eskatu behar, haiek ez baitira islamaren mezua galbideratzen dutenen erantzule, justifikaezina dena justifikatzeko:** errugabeen hilketa. Guk ere ez dugu barkamenik eskatzen gure auzoan bizi den pertsona batek genero-indarkeriako ekintza bat egiten duenean. Lotsa da sentitzen duguna, oraindik horrelako gauzak gertatzen diren gizarte batean bizitzeagatik. Komunitate musulmanek, atentatu jihadistia baten aurrean, biktimganganako errukia sentitzen dute (ez da ahaztu behar, batzuetan, indarkeria horrek zuzenean eragiten diela), eta lotsa eta atxikimendu eza, islamarekin bat ez datorren modu horretan jokatu dutenenganako. **Musulmanek eta euren ordezkariak ez dute beste aldera begiratzen atentatu baten ondoren, berehala gaitzesten dute publikoki.** Baina erruduntasun orokorrean eta islamaren eta terrorismoaren amalgaman ez erortzeko ere eskatzen dute.

## Zer egin daiteke gazteen erradikalizazioa saihesteko?

Bada, hasteko, **gazte horien ibilbide birala azaltzea garrantzitsuagoa dela ulertzea, islamari eta musulmanei erradikalizaziorako eta indarkeriarako joera natural bat egotzi baino lehen**. Soziologia gehiago eta teologia gutxiago behar ditugu erradikalizazioa ulertzeko. Eta prozesu horiek gertatzen diren testuinguruak ulertzea, faktore askok esku hartzen baitute. **Bistan da prozesu horiek saihesteko prebentzio-ekimenak gauzatu behar direla**. Ekimen horiek ez dira soilik segurtasunaren ikuspegitik bideratu behar, eta ez dute gazte horienganako susmo berririk areagotu behar. Eta, gainera, komunitate musulmanak kontuan hartu behar dira, haiek baitira beren gazteetako batzuk doktrina islamikoaren interpretazio desegoki batek limurtu izanaren biktima nagusiak.

## Zergatik erakusten dute komunikabideek musulmanen irudi hain negatiboa?

**Albiste txarrek onek baino gehiago saltzen dute, eta are gehiago errealitatea ikuspegi bitar batetik interpretatzen dutenek**, non batzuk errudun gisa aurkezten baitira eta beste batzuk biktima gisa. Islamarekin eta musulmanekin zerikusia duten albisteen estaldurak konnotazio negatiboagoa izan ohi du positiboa baino, eta horrek gainditzeko oso zaila den desoreka sortzen du, eta kolektibo horrekiko begirada soziala baldintzatzen du. Gainera, **kolektibo askotarikoa eta heterogeneoa homogeneizatzeko joera dago**, multzoari eragiten dioten egoera jakin batzuk orokortzen direnean. Ardazte hori berrikusi egin beharko litzateke, eta begirada pluralago, objektiboago eta testuinguruaren araberakoa bultzatu. Agian hori ulertuko da, hedabide horiek eduki informatiboen artean aukera dezakeen publiko musulman batengana ere zuzendu daitezkeela jabetzen direnean.

## Ba al da islamofobiarik, ala musulmanak esajeratzen ari dira?

Islamofobia existitzen da; musulmanei modu iraingarrian zuzentzen zaizkien ekintza, jarrera eta diskurtso gero eta gehiago identifikatzen dira. Arrazakeria, oso anekdotikoa iruditzen bazaigu ere, ez da inoiz hutsaldu behar. **Arrazakeria desagerrarazteko lehen urratsa da hura existitzen dela aitortzea, eta haren ebidentziak ez ukatzea.** Arrazismo espezifiko batek, islamofobiak esaterako, kolektibo jakin batzuen gizarte-bazterketa justifikatu nahi du, kasu honetan, haien erlijio kidetasuna dela eta, eta hori ezin da onartu edo desenkusatu. Bitxia da islamofobia areagotu egiten dela musulmanak gure gizartearen parte aktibo direnean, eta **horrek erakusten du oraindik ere badirela pertsona eta talde batzuk gure gizartea kultura anitzeko errealitate bihurtu dela ulertzen ez dutenak.**

